

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 4711

*AGINDUA, 2023ko urriaren 6koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Laguntzako Langileen Talde Profesionalean enplegua finkatzeko prozesu bereziko eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuko kalifikazio-epaimahaiaren osaera.*

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez, deialdia egin zen Laguntzako Langileen Talde Profesionalean enplegua finkatzeko prozesu berezirako eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesurako.

2022ko uztailaren 12ko Aginduaren bidez, hautaketa-prozesu horietako epaimahaietan parte hartu behar duten pertsonak izendatu ziren, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2022ko maiatzaren 18ko Aginduaren bidez onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorretako 18. apartatuan xedatutakoari jarraituz.

Laguntzako Langileen Talde Profesionalean enplegua finkatzeko prozesu bereziko eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuko epaimahaietan bigarren bokal titular eta ordezkio izateko izendatutako pertsonak, ordea, dagoeneko ez dira karrerako funtzionario izango agindu hori indarrean jartzen den datan, erretiroa hartua izango dutelako. Horregatik, beste pertsona batzuk izendatu behar dira.

Horrenbestez, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.8 artikuluan 18.2.q) artikuluari dagokionez xedatzen denaren arabera, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Valentín Fernández de Luco Martínez izendatzea bigarren bokal titular Laguntzako Langileen Talde Profesionalean enplegua finkatzeko prozesu bereziko eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuko epaimahaietan.

Izendatutako pertsonak osatuko du aipatutako epaimahaia, salbu eta ezgaitasun, ezintasun edo legezko bateraezintasunen bat, abstentzio-kausaren bat edo ezinbesteko kausaren bat ikusten badu Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak.

Hirugarren artikulua.– Agindu hau 2023ko azaroaren 3an jarriko da indarrean.

Bigarren artikulua.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta

2023ko urriaren 17a, astearta

hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik, betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 6a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.